

Egindakoa aitortu du

Nikaraguako Somoto herrira bideratutako udal funtsak bidegabeki erabili eta horiekin prebarikatu zuen Ana Urchueguia alkate ohiak / 2-3

TXINTXARRI

Bertsolari gazteak, plazaz plaza

Earra bertso eskolako ikasleek Eskolarteko txapelketan eta Udaberriko Bertso Saioan parte hartu dute berriki / 7

**Zubietako erraustegia
ixteko eskatu dute
beste behin ere,
bertaraino
martxan joanda / 4**

**Aintzane Usandizaga
idazleak lagunartean
aurkeztu du
'Zomorrotu'
ipuin bilduma / 5**

**Usadioari traizio egin
arren, sormenari
leialtasuna erakutsi
diote Udaberriko
Bertso Saioan / 6**

**Mikel eta Ekaitz
Kortajarena anaiek
RACVN Mendeurreneko
Kopa irabazi
dute, Lodosan / 10**

**Ostadar Atletismoa
saileko gazteek
sei domina irabazi
dituzte Eskolarteko
Txapelketan / 11**

**Dantzaren Lasarte-
Oriako Osteguna
ospatu dute zenbait
dantza taldek,
giro ederrean / 16**



8. URTEURRENA

LASARTEORIATARREN BEGIEN OSASUNA ZAINTZEN

Deskontu handiekin ospatuko dugu, aprobetxa itzazu!

Hartu hitzordua 943 377 455 telefonoan
edo whatsapp bidez



Kale Nagusia, 15
LASARTE-ORIA
MULTIÓPTICAS



Ana Urchueguia, bere bulegoan, 2010eko otsailean. TXINTXARRI

Delituak egin izana onartu du

Nikaraguako Somoto herrira bideratutako dirulaguntzetako dirua bidegabeki erabiltzea eta horrekin prebarikatzea aitortu du Lasarte-Oriako alkate ohi Ana Urchueguiak. Akordioa egin du Fiskaltzarekin eta bi akusazioekin, kartzela zigorra saihesteko

Txintxarri

Hainbat delitu egin izana onartu du Lasarte-Oriako alkate ohi Ana Urchueguiak: 2000tik 2008ra, Nikaraguako Somoto herrira bideratutako udal funtsekin prebarikatzea eta diru hori bidegabeki erabili izana, hain zuzen. Akordioa egin du Fiskaltza eta bi akusazioekin: ez du kartzelara joan beharko ez dutelako egiaztatu egindakoarekin aberastu zenik. Hemezortzi urteko inhabilitazioa eta 2.160 euroko isun bat ezarri dizkiote. Gipuzkoako Auzitegiak berretsi beharko du hori, Urchueguiaren aurkako ahozko epaiketa bertan behera gera dadin.

1986tik (Lasarte-Oria udalerrri independente gisa eratu zuten urte horretako otsailaren 15ean) 2010era izan zen Urchueguia Lasarte-Oriako alkate, PSE-EE alderdikoa. Somoto auzia izenez

ezagutzen den aferako informazioa urte horretan hasi ziren argitaratzen, eta dimititu egin zuen. Txileko eta Peruko ordezkari izendatu zuen orduan alderdi bereko Patxi Lopez lehendakariaren gobernuak.

Aferaren kronologia

2011ko udal hauteskundeetan, EAJ-PNVrekin eta Herriararren Plataformarekin akordioa eginda, alkatetza hartu zuen Pablo Barriok (EH Bildu). Legealdi horren amaiera aldera kereila bat aurkeztu zuen Lasarte-Oriako Udalak, Urchueguia auzitara bidaltzeko. Afera horrek bide luzea egin du epaitegietan, behin-behinean artxibatua izateraino 2020an, Nikaraguaren elkarlan judizialik gabe aurrera jarraitzea zaila zela argudiatuta. Udalak helegitea jarri zion erabakiari eta hurrengo urtean auzia

berrirekiteza erabaki zuen Gipuzkoako Auzitegiak.

LOSSB bulegoa

Berria egunkariak argitaratu duenez, bi milioi euro baino gehiago bideratu zituen udalak Somotora, kooperazio egitasmoak sustatzera. LOSSB (Lasarte-Oria eta Somoto Senidetzeko Bulegoa) erakundea izan zen diru hori kudeatu zuen elkarteetako bat, baina akordioaren dokumentuan zehaztu dutenez, izaera juridikorik ez zuen, eta ordainketak "legez kanpo" egin zituzten. Hori da Urchueguiak egindakoen adibide bat.

Edonola ere, ez da kartzelara joango, ez dutelako egiaztatu jarduera horiekin aberastu zenik eta egindako desbideratzeek kalte edo oztopo larririk egin zienik horietara izendatutako zerbitzuei.



Froilan Elespe Herriko Etxearen kanpoaldea. TXINTXARRI

PSE-EE: "Zalantzak argitzea izan da gure interesa uneoro"

Lasarte-Oriako alkate ohi Ana Urchueguiak hainbat delitu egin izana onartzeko akordioaren berri izan eta gero, komunikatu bat kaleratu du Lasarte-Oriako PSE-EEK. Erabaki judiziala errespetatzen duela adierazi du alderdiak, "uneoro gertatutakoa argitzeko interesa" izan duela azpimarratu eta 1986tik 2010era arte kargu horretan egon zenak dirulaguntzetara bideratutako dirurik poltsikoratu ez zuela nabarmendu.

Urchueguiak Fiskaltzarekin eta bi akusazioekin egindako akordioari "errespetu osoa" adierazita ekin dio oharrari Lasarte-Oriako PSE-EEK, "esparru guztietako erabaki judizial guztiekin betidanik egin duen bezala".

Sozialistek adierazi dute "uneoro" izan duela interesa alderdiak zalantzak argitzeko, Lasarte-Oriako Udalak Nikaraguako Somoto herriarekin 2000 eta 2008 urteen artean izan zuen lankidetzara egitasmoei buruzkoak. "2010eko martxoaren 1ean dimititu zuen Ana Urchueguiak eta, ondoren, Jesus Zaballosek gidatutako gobernu sozialistak, Alkatetza bere gain hartu zuenak, kanpo auditoria bat kontratatu zuen Deloitte enpresarekin, fiskalizatzeko, eta ikerketa

ANA URCHUEGUIAK DIRULAGUNTZA HORIETAKO DIRURIK EZ POLTSIKORATU IZANA AZPIMARRATU DUTE

batzorde bat eratu zuen, kudeaketa horretan hainbat administrazio irregulartasun gertatu zirela aitortzen zuten ondorioak onartzeko". Hurrengo lau urteetan, 2011etik 2015era, PSE-EE oposizioan egon zenean, EH Bildu, EAJ eta Herriararren Plataformari eskaera bat aurkezteko "behin eta berriro" eskatu ziela adierazi dute. "2015eko hauteskundeetarako hilabete gutxi falta zirela egin zuten hori".

"Ana Urchueguiak ez zuen dirurik poltsikoratu"

"Epaitutako gertakarien larritasunari garrantzia kendu gabe, Lasarte-Oriako PSE-EEK nabarmendu nahi du akordioan berariaz adierazten dela Ana Urchueguia ez zela jabetu dirulaguntzetara bideratutako kopuruez, eta diru publikoaren desbideratzeek ere ez zutela kalte edo oztopo larririk eragin esleitura zeuden zerbitzuan, Somoton erabili baitziren", azpimarratu dute herriko talde sozialistako kideek. Gehitu dute euren jarrera abian zegoen prozesu judizial bat ez oztopatzea izan dela hasieratik, "gure jokabideaz zalantzarik izan ez dadin".

Hori guztia esanda eta "alderdi guztien artean lotutako akordioaren ondoren", PSE-EEK "amaitutza" eman du "2008ko auzi zahar bat". Azaldu du tresnak ematen jarraituko diola udalari, "horrelako irregulartasunak berriro gerta ez daitezen".



Jon Antxordoki eta Estitxu Alkorta agertu dira prentsaurrean. TXINTXARRI

EAJ: "Gure salaketak justifikatuak zirela berretsi du ebazpenak"

Lasarte-Oriako alkate ohi Ana Urchueguiak funts publikoak bidegabe erabili izana onartu eta fiskaltzarekin egindako akordioaren berri izan eta hurrengo egunean, adierazpenak egin zituen Lasarte-Oriako EAJk; prentsaurrea agertu zen, astearte arratsaldean, hilak 2.

Tximistarreta parkean eman zuten prentsaurrekoa alderdiki kide Jon Antxordokik eta Estitxu Alkortak, eta, adierazi, berriki ezagutera eman den ebazpenak eta Ana Urchueguiak Lasarte-Oriako Udalaren "ordezkari nagusi" zela egin zituen prebarkazio delituak eta lankidetzarako funtsak bidegabe erabili zituela esplizituki aitortu izanak hainbat puntu egiaztatzen dituela.

Alde batetik, nabarmendu dute Lasarte-Oriako EAJk 2007. urteaz geroztik lankidetzaren funtsen kudeaketari buruz eurek egindako "salaketa errepikatuak" justifikatuak zirela eta ebazpenak horiek berretsi besterik ez dituela egin. Gaineratu dute, akordioak eta Urchueguiak aitortutakoak, hamasei urteko lan politikoaren eta eurek aurrera eraman duten salaketa judizialaren ondoren, arrazoa zutela "argi frogatua" geratu dela:

GKE, ELKARTE ETA EKINTZAILEI BARKAMENA ESKATZEKO GALDEGIN DIO EAJK PSE-EERI

"Arrazoa gurea da. Frogatuta geratu da Urchuegia andreak funts publikoak legez kanpo erabili zituela".

Azpimarratu dute baita ere argi geratu dela "egiten ari ziren irregulartasun nabarmenen aurrean" Euskadiko PSE-EEK ez zuela behar bezalako arretarik izan Lasarte-Oriako alderdi politikoei eta komunikabideei behin eta berriz egin zizkieten salaketei erantzuteko: "Ana Urchuegia andrea babesten eta sustatzen lagundu zuen, nahiz eta publikoa izan lankidetzaren funtsen kudeaketa, etikoki gaitzesgarria zela gutxienez, 2007ko udan Urchueguiak Somoton izandako ibileren ikus-entzunezko dokumentuek agerian uzten zuten moduan".

Denbora horretan guztian, ikerketa oztopatu ez ezik, Patxi Lopezen Eusko Jaurilaritzak ihesbidea eman ziola ere azaldu dute: "Eusko Jaurilaritzaren Txile eta Peruko ordezkari izendatu zuten. Ana Urchuegia, beraz, ez zen bakarrik egon". Hari beretik jarraituz, PSE-EERI eskaera bat eginaz amaitu zuten agerraldia: "Aurreko guztiagatik, Euskadiko PSE-EE barkamena eskatu beharrean litzateke, orduan eta orain Euskadin garapenerako lankidetzako proiektuetan lanean diren GKE-ei, elkartei eta ekintzailei, babes horrekin Ana Urchuegia andreaken jarduerak bidegabeki kaltetu baitzuten".



Uxue Loinaz eta Jon Martin, prentsa agerraldian. LASARTE-ORIAKO EH BILDU

EH Bildu: "Lasarte-Oriako PSE-EERI ardurak hartzea dagokio orain"

"Balorazio positiboa" egin du Lasarte-Oriako EH Bilduk Ana Urchueguiak Fiskaltzarekin eta akusazioekin lortutako akordioari buruz, herriko alkate ohiak herritarren dirua "bidegabe" erabili zuela baieztatzen duelako, baina, bestalde, uste du erantzukizuna hartu behar duela Lasarte-Oriako PSE-EEK.

"Zuhur, baina pozik, esan dezakegu: zurrumurrua zena, egia da orain. Ana Urchueguiak dirua modu bidegabe eta irregulartasunarekin erabili zuela onartu du, eta hala jasotzen da Fiskaltzarekin zein akusazioekin egindako akordioan", adierazi dute EH Bilduko udal taldeko kide Uxue Loinaz eta Jon Martinek, gainerako kide guztien izenean. Balioan jarri dute alderdiak urteotan guztian egindako lana, "hasieratik eta zailtasunak zailtasun" bide horretan aritu delako, auzia argitu zedin.

EH Bilduren jarduna gidatzen duten printzipioak "egia, zintzotasuna eta gardentasuna" direla nabarmendu dute, "baita Somotori buruzko kasuan ere". Gogoratu dute 2011-2015 legegintzaldian udalak kereila bat aurkeztu zuela alkate ohiaren aurka, akusazio partikular moduan,

"ZUHUR, BAINA POZIK, HAU ESAN DEZAKEGU: ZURRUMURRUA ZENA, EGIA DA ORAIN"

"governukideekin batera". Horregatik, hurrengo legegintzaldietan akusazio hori bera babestu dute, eta baita Pablo Barrio (bera izan zen alkate 2011-2015 legegintzaldian) akusazio popular moduan pertsonatzea.

Bide "zaila", baina "merezi izan duena"

Hasieratik bide horretan sinetsi izanagatik, "zaila" izan dela berretsi du EH Bilduk. "Sozialistek orain bestelakoak esan badituzte ere, prozesua oztopatu dute: hala nola, Miguel Castells abokatuak joan behar izan zuenean abokatuen kolegiara babes bila, PSE-EERI Udala Gobernuak ez zizkiolako lanerako erraztasunak ematen".

Horren haritik, koalizio subiranistak herriko PSE-EERI eskatu dio "ardurak hartu eta gaiari buruzko gogoeta zintzoa" egiteko. "Gure iritziz, ez da nahikoa akusazio partikular gisa akordioa lortzeko udalbatzarrean abstentziora jotzea".

Bukatzeko, berretsi dute "pozik" daudela akordioarekin eta horrek indartu egiten duela "herriatik, herriarekin eta herriarentzat" lan egiteko EH Bilduren konpromisoa. "Somotok erakutsi digu zein ez den kudeatzeko eredua. Denon artean egin behar dugu Lasarte-Oria, hori da gure apustua: egiatik eta parte hartetik bidea urratu nahi dugu herritar ororekin".

NEURE KABUZ
LIERNI REKONDO

Erantzukizunak

Somoto auziak eztanda egin zuenetik ia hamarkada igaro ondoren, herriko alkate zenak ardura beregain onartu du; kartzelara joatea ekidin eta zigorrari dagokionean akordio batera iristeko.

Hauteskunde kanpaina betean gauden honetan, herriko bazterrak nahasi dituen aitortza jaso berri dugu. Jakina zen arren, dagoeneko inoiz publikoki onartzea espero ez zena. Nik neuk, nire adinagatik, ez dut modu kontzientean bizi izan garai hori. Gogoratzen dut, besterik gabe, zalaparta handia sortu zela irregulartasunak argitara ateratzeko, eta nolako txisteak eta txantxak egiten ziren egoera arintzeko. Eta herritar gisa berria nola hartu dudana esan behar badut, positiboki baloratzen dut emandako pausua, zauria itxi eta beste etapa berri baterantz joatea ahalbidetu dezakeelako.

Dena den, hamarkada bete behar izan da egia argitara ateratzeko, eta berriz ere, herriaren aldeko pausu bat izan beharrean norbanakoaren aldekoa izan dela garbi gelditu dela esango nuke.

Garrantzitsua da aipatzea funtsak bidegabe erabiltzea delitua izateaz gain, ekintza antietikoa ere badela. Herritarrek konfiantza dute beren ordezkari hautatuengan, beren baliabideak arduraz eta zintzotasunez administrazio ditzaten. Dirua bidegabe erabiltzen denean, konfiantza hori traizionatu eta egungo sistema demokratikoa kolokan uzten du.

Lasarten gertatu dena, inguruko herri eta autonomietan gertatzen denaren lagin txiki bat besterik ez da, alderdi politiko ezberdinen aldetik ematen dena. Ustez gure ordezkari diren horiek, gure ongizatea bermatu behar duten euren alde lana egiteak agerian uzten du norbere ardurak hartu eta erantzukizunak onartzeko dugun zailtasuna. Hau ikusita, sistemari eta gure buruei buelta pare bat eman beharko genizkiogeeke iruditzen zait salbuespenak ohiko bihurtu baitira azken hamarkadetan. Egoera normalizatu, etsi eta gure amorrua eta ezinegona txiste txarrez estaltzera iristeraino.

Salbuespen neurriak gaitzetsi dituzte apirileko Azken Ostiralean

Ettxera Eguna egingo du Lasarte-Oriako Sarek etzi, hilak 7; Santa Barbarara mendi martxa egingo dute, besteak beste

Txintxarri

Elizatzte eta Okendo plazak lotu dituen mobilizazioa egin aurretik Ettxeratek eta Sarek egindako irakurketa partekatu zuten apirilaren 28an. Helmugako plazan, berriz, hilaren 17an izan

zen Preso Politikoen Nazioarteko Egunaren harira, Assana Shakuren komunikatu bat irakurri zuten. Bi arrazoiengatik aukeratu zuten: batetik, apirilaren 17a Preso Politikoen Nazioarteko Eguna izan zela gogorarazteko, eta

bestetik, "munduko hainbat eta hainbat bazterretan zapalkuntza ezberdinei aurre egiteagatik preso dagoen pertsona guztiei gure babesa adierazteko".

Ettxera Eguna

Lasarte-Oriako Sarek egitarau bat antolatu du etzirako, hilak 7. Santa Barbarara mendi martxa egingo dute 09:30ean abiatuta, eta itzultzean, 12:30ean, talde argazkia aterako Okendo plazan. Ondoren, luntxa eta bertsolariak izango dira.



Manifestariak, Azken Ostiralean parte hartzen. TXINTXARRI

Azkorteko Erromeria

2023ko maiatzak 7

10:00: Tabernaren irekiera

11:00: Meza Azkorteko ermitan (Alboka Abesbatzak abestuko du)

12:00etatik aurrera: Herri-kirolak. Beñat Telleria eta Julen Gabirondo Trikitilariak girotuko dute erromeria

Indarrak berreskuratzeko salda, txorizoa, odolkia eta edaria tabernan!



Autobus zerbitzua

*Goizeko 10:00etatik aurrera, erretiratuen elkartetik (Kale Nagusia 40 Lasarte-Oria) ermitara

**Ezin izango da kotxez ermitara igo, bidea itxita egongo da.



Martxalariak, Okendotik irten eta Kale Nagusian sartzen. TXINTXARRI

Zubietako erraustegira joan dira, hura ixteko eskatzera

Hirurogei bat herritarrek parte hartu dute ekintzan, 'Erraustegia lurra, ura eta airea kutsatzen' lemapean

Txintxarri

Hirurogei bat herritarrek parte hartu dute plataformak deitutako eta Donostia Bizirik, Eguzki eta Ekologistak Martxan elkarteek babestu dute ekintzan. "Erraustegia airea kutsatzen", "Lasarte-Oria esnatu, birziklatu" eta antzeko oihuak egin dituzte, adar hotsa eta musika lagun zituztela Kale Nagusian barrena joan direnean. Pankarta zeramatenen albo banatan heriotzaren moztorra zeramaten lagun bana jarri dira, eta partaideetako askok birziklatzearen aldeko banderak, erraustegiaren aurkakoak edota buzoak zeramatzaten.

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko kideek beste behin salatu dute errauste plantak eragindako kalteak ezkutatu nahi badituzte ere, azterketek kutsadurak gehiegizko maila gainditu duela diotela eta

arduradun politikoei neurririk hartu ez dutela. ToxicWatch fundazioak egindako ikerketari egin diote erreferentzia.

Egia "deserosoak"

"Erraustegiaren arduradun eta propagandistek errealtatea ukatzen jarraitu duten arren, azken hilabeteotan argitara ateratzen joan dira ezkutututako egia deseroso batzuk", adierazi dute mobilizazio horretan. "Zubietako erraustegia oso modu nabarmenean kutsatzen ari da".

Horren adibidetzat jarri izan dute Arkaitzerrekan gertatutakoa. "Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak, plantaren jabeak, kutsadura behin eta berriz ukatu arren, azkenean Ekondakin enpresari, azpiegituraren kudeatzaileari, espediente ireki dio, erreka hori kutsatzeagatik".



Aintzane Usandizaga, mikrofonoa eskuan, 'Zomorrotu'-ren nondik norakoak azaltzen, lagunez inguratuta. TXINTXARRI

Lagunez inguratuta aurkeztu du 'Zomorrotu'

Aintzane Usandizaga idazlea ez da bakarrik egon bere azken lanaren aurkezpenean, Agora tabernan: Danele Sarriugarte alboan izan du aurkezle lanetan, Oihane Aranek eta Leire Vargasek pasarte batzuk irakurri dituzte eta Antuxuna Ta Patx musikariak girotu dute ekitaldia

Txintxarri

Mahaiak egon ohi diren lekuan, zortzi aulki eta aurrez aurre beste bi daude. Albo batean atrila eta mikrofono bi, beste aldean, musikarien txokoa. Gainerakoei begira dauden bi eserlekuak norentzat diren jakina da, besteak, berriz ez. Eta ez dira inondik ere nahikoa. Azkar bete dira eta zorua leku ona izan da zutik gelditu nahi izan ez dutenentzat.

"Sozializatzeko zomorrotak behar ditugu eta zomorrotak dira kodigoak, antzezpenak, diskurtso jakin batzuk... eta gorputza sartzen da hor ere bai oso modu nabarmenean. Nola janzen garen, zer jarrera hartzen ditugun, askotan oharkabea ere dena da horren parte". Hori da elkarren artean lotura duten bost ipuineko liburuaren esanahia. Bertan agertzen diren gaiez eta pertsonaiez mintzatu da egilea Danele Sarriugarterekin. Prozesuan lagun izan du lasarteoriatarak, eta liburuko pertsonaiekin askotan identifikatu dela aitortu du

galderei ekin aurretik. "Uste dut poliedrikotasuna oso ondo landu duzula. Ikusiko ditugu hainbat pertsonaia beraien bizitzako momentu batean ez dakitela oso ondo nondik jo".

Abiapuntu ezberdinak

Autoeskolako irakasle sasi filosofoa, keinu bilduma egiten duen neska beti-jatorra, lesio bat eta landare asko zaindu behar dituen aita kezkatua, ikuspegi originalen bila dabilen musikaria... Haiek sortzeko abiapuntu ezberdinak izan ohi dituela azaldu du Usandizagak, pertsonaia jakin batzuk ingurune batean nola moldatzen diren ikustea gustatzen zaiola. Pertsonaia berriro agertzen dira ipuinetan, baina beste leku batean. Izan ere, "jolas" hori izan zen liburuaren abiapuntua: Pertsonaia berdinak nolakoak diren beste pertsonaia batek kontaktatzen dituenean. Beraz, informazioa zatitua eman, eta irakurleak bere iritzia sortzen joan behar du, "zuloak osatzen".

Ondorioz, egiturak garrantzia berezia izan du sorreratik, eta Usandizagak lan handia egin du bai loturari bai ordenari dagokionean. Pertsonaien arteko harremanak edo batek egiten zuen ekintzak beste batzuei eragiten baitzien. "Hori zen islatu nahi nuena, hori zen liburuaren erronka handiena".

Liburuan agertzen diren gaien artean bi nabarmendu ditu. Batetik, oso zaila dela bi pertsonen gauza berdina modu berean ikustea, eta bestetik, idealen eta errealitatearen arteko aldea, hau da, "izan nahiko genukeen hori, baina izatera iristen garena". Horrekin batera, beste batzuk ere azaleratu dira: dena izan nahia, egonkortutako harremanetan lekuz kanpo sentitzea, laguntasuna, une bakoitzean tokatzen dena egitea, dena pikutara bidaltzeko gogoia, eta abar.

Solasaldia amaituta, ospatzeko garaia heldu da; eta nahi izan duenak, liburua erosteko aukera ere izan du.

Literatur lehiaketetara lanak aurkez ditzakete herritarrek

Hilaren 12a izango da horretarako azken eguna, ostirala. Poesiak, ipuinak eta mikrokontakizunak sarituko dituzte

Txintxarri

Aurtengo literatur lehiaketak martxan jarri ditu Lasarte-Oriako Udalak. Jakinarazi du lanak aurkezteko azken eguna hilaren 12a izango dela, ostiralarekin. Aurreko urteetan bezala, euskarazko nahiz gaztelaniazko poesia, mikrokontakizun eta ipuinak sarituko dituzte. Antolatzaileek zehaztu dute aurkezten diren idazkiek originalak izan beharko dutela. Haurren ala helduen kategorian parte hartu, sariak desberdinak izango dira.

Ekitaldia azaroaren 18an egingo dutela aurreratu dute.

Udal Musika Eskola

Udal Musika Eskolako arduradunek jakinarazi dute datorren astelehenean irekiko dutela aurrematrikula egiteko epea, hilak 8, 19ra arte. Interesa dutenek kultur etxeko bigarren solairura joan behar dute, administrazio bulegora. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, musikaeskola@lasarte-oria.eus helbide elektronikora idazteko eskatu dute.

Errigorako produktuak banatuko dituzte Ttakunenean

Errigoraren Lasarte-Oriako Taldeak jakinarazi du datozen egunetan banatuko dituztela udaberriko kanpainako produktuak, Ttakunenea elkartean (Iñigo de Loiola kalea, 6). Bide batez, eskerrak eta zorionak eman dizkie beste behin Nafarroa hegoaldean euskara eta bertako ekoizleen lana sustatzen laguntzen duen

egitasmoan parte hartu izanagatik. "Mila esker bide honetan sinesteagatik!".

Oliba olioaren hilaren 9an eta 10ean banatuko dute, asteartean eta asteazkenean, 16:00etatik 20:00etara. Handik egun batzuk barru, hilaren 16an eta 17an, toki eta ordu berean, kontserba produktu eta kutxak.

Errigoraren balioak erakutsi eta azpimarratzea izan da duela gutxi amaitu duten udaberriko kanpaina horren helburu nagusia.



EAGI ESKOLA

Paperak aldatu dituzte

EAGI eraikuntza eskolako eta Donostian Arkitektura ikasten duten 4. mailako ikasleek Paperak Aldatuz egitasmoa aurrera eramanez Lasarte-Orian. Eraikuntza ikasleak irakasle bilakatzen dira eta etorkizuneko arkitektoei azaltzen dizkie igeltserotza eta igeltso panelak nola muntatu. 100 estudiantek inguruk parte hartu dute aurtengo egitasmoan; "oso aberasgarria" izan dela esan dute.

Usadioari, traizio; sormenari leial


Udaberriko Bertso Saioa

Udaberriko Bertso Saioa urtaroko tradizioetako bat bilakatu da Lasarte-Orian. Pandemiak bertan behera utzitakoa eta beste urtaro batean egin zena salbu, Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako ikuskizuna galdu ezin duten hitzordua da askorentzat. Gai jartzaile aritu zen Bea Egizabalek protagonismoaren zati bat partekatu zuen bai Ane Labaka, Onintza Enbeita eta Andoni Egaña bertsolariekin bai emanalditxoak egin zuten sortzaile gazteekin. Nahiz eta *Tradizioari traizio* izenburua aukeratu, ohi bezala, larunbatean, apirilak 29, kultur etxera bertaraturakoei espero zutena eta gehiago ekarri zuen saioak.

Sudur gorriak amets bat zuela aitortu zuen iazkoan: gai jartzaile izatea. Nahia betetzeko, ordea, oztopo—aurkezle—ugari izan zituen; aurtun, berriz, arantzatxoa kendu du, nahi beste gai jarrita. Hori bai, bere estilora: behin bertsolariei azaldu (edo), beste behin, publikoari, entzun ez balute bezala. Mandatua ondo betetzeko ohar ugari bilduta irten zen agertokira, ikus-entzuleei zerrendatu zizkion, eta ondorio xeble batera heldu zen: bertso saio bat bertsolari gabe egin daiteke, ez ordea, gai jartzailerik gabe. Hala ere, hirukotea han izan zen. Eta ez bakarrik, gainera, saioa herriko sortzaileen erakusleho txikia ere baita. Lehena, Ibai Morales izan zen, aita txalapartaria izan arren, beatboxean dabilena; ondoren, Aritz Ramos eta Uxue Odriozola euskal dantzari aritu ziren, Javier Herreros dantza urbanoan, Aiora Arrese poesian, eta Earra bertso eskolakoak, bertsotan. Iraun zuen bi orduetan traizio asko onartu zituzten bertsolariek, baita tradizioa nola eratzen (marrazki eta guzti "azaldu" zuen Egizabalek) eta alda daitekeen hausnartu ere. Umoretik ia beti, arrastotik atera eta bide berriak jorratzea zer den gorpuztu zuten.



Tradizioari eta traizioari giraka aritu ziren bertsotan Labaka, Egaña eta Enbeita. TXINTXARRI



Gai jartzaileen eskuliburuko oharak errepasatu zituen Bea Egizabalek. TXINTXARRI



Partaide guztiak, amaieran, ikus-entzuleen txaloak eta esker ona jasotzen. TXINTXARRI



Beatboxa, dantza, poesia eta bertsoak eskaini zituzten sortzaile gazteek. TXINTXARRI

Zozketa irabazita, bertso saioaz gozatu dute

Udaberriko Bertso saioaren aurretik hiru sarrera bikoitz zozkatu zituen Ttakun Kultur Elkarteak: Alazne Ramos, Oneka Arteaga eta Igone Mendizabal izan ziren irabazleak. Horri esker, Tradizioari traizio emanaldiaz gozatu ahal izan zuten hiruek, bakoitza lagun batekin joanda.

Adi egon, datozen asteetan zozketa gehiago egingo baititu euskara elkarteak. Horien berri www.txintxarri.eus atari digitalean izango duzue.



Alazne Ramos. TXINTXARRI



Oneka Arteaga. TXINTXARRI



Igone Mendizabal. TXINTXARRI



Earra bertso eskolako ikasleak, mikrofonoen aurrean, Bea Egizabal gai jartzailearen jarraibideak entzuten, Udaberriko saioan. TXINTXARRI

Jarduera bat baino gehiago

Plazaz plaza dabilta azkenaldian Earra bertso eskolako ikasleak, astero ikasten dutena praktikan jarri eta bertsolaritzaz gozatzen. Errimaz errima eta puntuz puntu, eskolaz kanpoko ekimen zena talde eder bilakatu da. Irakaslearekin eta ikasle batzuekin elkartu da TXINTXARRI

Iñigo Gonzalez Sarobe

Artikulu hau idatzi duen kazetariak askotan pentsatu du, kronometro bat aurrean jarritz gero, titular bat zenbat denboran idatziko lukeen. Izerditan hasi da jakin duenean Earra bertso eskolako ikasleek bete beharreko baldintzak zeintzuk izan ziren, martxo amaieran Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan parte hartu zutenean: ofizioetan 30 segundo eta bakarkakoan minutu bat, bertso bat osatzeko. Ez da batere lan makala, kontuan izan behar duten guztia aintzat hartuta: nola bukatu, gaia zein ideiekin josi, nola errimatu...

Gauza horiek guztiak eta gehiago lantzen dituzte Earra eskolako partaideek Lierni Rekondo irakaslearekin, Oriarte institutuko Landaberri eraikinean aurrera eramaten dituzten saioetan. Liernirekin berarekin

eta zenbait ikaslerekin elkartu da TXINTXARRI, esku artean dutenari buruz gehiago jakiteko: Maddi Lasa, Arait Ramos, Nikola Iraola eta Xuban Urdalleta. Gaurkotasunak agintzen omendu kazetaritzan, eta, horri helduta, apirilaren 29ko Udaberriko Bertso Saioan bizitakoari buruzkoa izan da lehen galdera –6. orrian irakur eta ikus ditzakezue saioaren kronika eta argazkiak–.

Gustura izan da erantzunetan gehien errepikatu duten hitza. Nikola: "Gure herrian horrelako aukera bat izatea pozgarria da; lasai eta gustura aritu nintzen". Maddi ere antzera aritu zen, baina onartu du kultur etxeko auditorioan bildu ziren ikus-entzuleak ikusteak inpresioa egin ziola. "Eskolarteko txapelketa hilabete bat lehenago jokatu genuenez, horrek lagundu zidan urduritasuna hobeto

kudeatzen, baina egia da presio pixka bat ere nabaritu nuela Ane Labaka, Onintza Enbeita eta Andoni Egaña bezalako bertsolariekin batera aritzean", adierazi du Xubanek. Nerbioak nerbio, ekitaldi horretan parte hartu zutenak elkarrekin igo ziren oholtzara, eta horrek lasaitu zituela esan dute lauek.

Gazte, lasarteoriatar, euskaldun eta bertsolari izateagatik entzun behar izaten dituztenei buruz abestu zuten; hori izan zen gaia. "Ikuspuntu ezkor batetik" heldu zion gaiari Nikolak, nahiz eta balioan jarri duen bertso eskolan egiten ari direna: "Herri erdaldun izatearen fama du Lasarte-Oriak, eta bada, asko, baina beno, hemen gaude gu, hamabost bat kide gara eta horietako bost Eskolarteko txapelketan izan ginen. Bestalde, egia da hemen gaudenak euskara sustatzen

aritzen garela beste alor batzuetan, 'betikoak' garela". Martxo amaierako lehiaketa horri heldu zion Xubanek, kontraesan bati buruz aritzeko: "Horra iritsi izana meritu handia izan da batzuentzat, baina beste askok ez dute ezagutu ere egiten".

Gai hori interesgarria dela onartu dute lauek, baina Arait eta Maddik gogoeta hau egin dute: ez zela errazena izan, kontuan izanda bertsoak bat-batean bota behar dituztela. "Hasieran konplikatu iruditu zitzaidan, baina ikaskideek nola lantzeraz zihoazen ikustean, lasaitu eta heldu nion nik ere", esan du Araitzek. Horri lotuta, berehalakotasun horren gauza zailenetako bat da bakoitza esatera doana kontrolatzea uneoro, dena delakoa bota eta gero ez damutzeko. "Baina tira, bertsoak egiteko modu horren gauzetako bat da hori".

Eskolarteko txapelketa

Udaberriko Bertso Saioa apirilean, eta Eskolarteko txapelketa martxoan. Liernik gogoratu duenez, urtarrilean hasi ziren lehiaketa hori prestatzen: "Azkartasuna landu genuen hasieran, gero esan behar genuena nola esan, gero txukuntasuna...". Arait: "Exijentzia igo egin genuen pixkanaka". Egindako ibilbidea aztertu du Xubanek: "Eboluzionatu egin dugu: hasieran bertsoak denborari begiratu gabe botatzen genituen, gero azkarrago, gero kronometroa eta guzti jarrita... Bat-batekotasuna landu dugu". Ikasturte hasieran bi talde desberdinetan aritzen ziren lau ikasle horiek, baina elkartu egin ziren Eskolartekoa prestatzeko. "Oso polita izan da ikustea nola sortu duten talde handi bat", adierazi du, harro, irakasleak.

Zarauzko kanporaketan aritu ziren Arait eta Maddi; Nikola, Xuban eta beste taldekide bat, Oihan, Amezketan. "Gogoratzen dut oso urduri izan nintzela aurreko egunetan; momentua iriste eta bukatzea nahi nuen", oroitu du Nikolak. Gero, ordea, "asko" gozatu zuen, ez bakarrik saioaz, baita afariarekin ere: "Jende bikaina ezagutu genuen". Maddik, esaterako, uste zuena baino askoz hobeto kudeatu zuen presioa: "oso urduria" izan arren. Araitzek, aldiz, justu kontrakoa sentitu zuen, abesten hastekoa zenean kirioak dantzan zituelako, Xubanek bezala. Edonola ere,

egindakoarekin gustura geratu ziren biak.

Ikus-entzuleen artean aurpegi ezagunak ikusi zituzten Araitzek eta Maddik, familiakoak batez ere. Nikolak eta Xubanek, kuadrillakoak ere bai. "Ederra izan zen gure fazeta hori ezagutzea lagunek: gu, bertsotan". Liernik gogoratu duenez, irakasleekin batera joan ziren gazteak. "Oso polita da lortu dutena ikustea".

Eskolartekoaren bueltan dena ez zen presioa eta urduritasuna izan, ordea. Finalaren asteburuan, apirilaren 21etik 23ra artekoan, Lasturren izan ziren asteburu pasa, bertsolaritzaz gozatzen eta jende berria ezagutzen. "Ikragarri ondo pasa genuen, oso plan polita da eta bertsolaritzaren bueltan dabilen jende asko ezagutzeko aukera ematen dizuna", nabarmendu du Maddik.

Jarduera bat baino gehiago

Polita da baita ere saioz saio, ariketaz ariketa eta esperientziak esperientzia landu duten giroa, bat-batekotasuna lantzetik abiatu eta iraunkorra izango dena. "Eskolartekoa eta Udaberriko Bertso Saioa tarteko, azken asteburuak elkarrekin pasa ditugu", adierazi du Liernik. Ariketa, errima eta bertsoetatik harago proiektu batzuk martxan jartzen ari dira: kirol jertse batzuk egin nahi dituzte, esate baterako. Hori aurrera eramateko dirua lortzeko, etxetik abestu zuten Eguberrietan, eta poltsa batzuk salgai jarri dituzte.

Aurreratutako ikasturte amaieran Eskolarteko txapelketaren antzeko saio bat egingo dutela, Lasarte-Oriari begira, orduan egin zituzten ariketetan oinarrituta: hasierako eta amaierako agurrak, lau oinak emanda, ofizioetan bina bertso, puntuka trikitixarekin, puntu-erantzuna eta bakarkakoa. Beste proposamen batzuk ere jaso dituzte, aztertu eta adosteke dituztenak.


Txantxetan esan dute "erdi sekta" bilakatzen hasiak direla, "gurekin aritu eta atera ostean, berririo biltzen direlako gugana". Dena den, Earra ez da talde itxi horietako bat, kontrakoa baizik: "Edonor etor daiteke". Eskolan izena eman nahi dutenek earrabertsoeskola@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidali behar dute, arduradunekin harremanetan jartzeko.

Baietz Hamahiru!

Horra Maripurtzil eta Pelloziri, komuna garbitzeko prest. Berdin-berdinak ematen dute gure bi lagunek, ezta? Baina badira aldeak bien artean. Ea aurkitzen dituzun.



Handienetik txikienera



Ordена itzazu komuneko paperak handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 8.

Bete itzazu hutsuneak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Denboraren dominoan



Bakoitzari berea

Gezurra dirudi, zenbat tresna erabiltzen diren etxean garbiketarako. Hona hemen batzuk. Lotu gauza bakoitzari bere izena.





Itzala

Ai, gaixoa Pelloziri. Usapal batek kaka egin dio leihoan eta garbitu beharra dauka. Piura harrigarria du, ezta? Baina lasai, ez da leihotik eroriko, eta eroriko balitz ere, ez litzateke larria izango, lurretik metro erdi eskasera baitago. Beno, beno, utz ditzagun azalpenak eta harira: zein da bere itzal zuzena? Bide batez, irudia MARGOTU.


Sudokua

Bete itzazu sudoku honetako hutsuneak, LEIHOA hitza osatzen duten hizkiak (L, E, I, H, O eta A) dagokien tokian jarriz. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

A		O			
	I			A	
		A		O	I
O			A		H
E			I		A
I	A				L

Mezu Gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta gure lagunek zer dioten asmatuko duzu.



A	B	C	D
E	F	G	H
I	J	K	L
M	N	O	P
R	S	T	U
X	Z	.	,

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

Kortajarena anaiak, Lodosako podiumean

Lodosako II. Lurreko rallya jokatu dute apirilaren 29an, Nafarroako herrian. Kortajarena anaiak RACVN Mendeurreneko Kopako lehen postua eskuratu dute; sailkapen orokorrean zazpigarren izan dira eta 1. mailako bigarren amaitu dute lehia

Txintxarri

Ekaitz (gidari) eta Mikel (kopilotu) Kortajarena anaiak Lodosako II. lur eremu proban parte hartu zuten apirilaren 29an, Lodosan, Nafarroan. 51 ibilgailu lehiatu ziren Sartaguda, Lodos eta Alcanadre (Errioxa) inguruetak lur eremuetan. Kortajarena anaiak euren Ford Focusarekin sailkapeneko lehen postuetan egotea lortu zuten; Real Automovil Club Vasco Navarro (RACVN) Mendeurreneko kopako garaile izan ziren.

Erlojuaren aurka 9,4 kilometrotako ibilbidea hiru alditan egin zuten gidariek; guztira, 28,2 kilometroko lehia izan zen.



Kortajarena anaiak, RACNV kopako podiumeko gorenean. JOSE A. DIEZ FOTOGRAFIA

Lasarte-Oriako ordezkariak lehen hamarren artean amaitu zituzten hiru saio kronometratuak. Lehen saiakeran 06.44,900 egin zuten eta bigarrenean denbora murriztea lortu zuten, 06.38,100. Azkenekoan, aldiz, mantsoago joan ziren eta 06.39,100eko marka egin zuten.

Sailkapen orokorrean zazpigarren sailkatu ziren 20.02,100eko denbora metatuarekin eta 1. mailako bigarren izan ziren. Horrez gain, RACNV Mendeurreneko kopako lehen lehiaketa puntuagarria zen eta herritarrek lehen postua eskuratu zuten Lodosako proban.

Ekainera arte ibilgailua hobetzeko aukera izango dute Kortajarena anaiak. Kopako hurrengo hitzordura Cuzcurritako lurreko rallya izango da.

Egutegian moldaketak

Euskadiko mendi igoerako denboraldian, bestalde, moldaketak izan dira. Gorlako igoera ez da jokatuko – asfaltatze lanak ez direlako egin – eta Jatako igoera irailera atzeratu da. Beraz, Aitor Mansok uztalean jokatuko den San Cosme igoerara (Bizkaia) arte ez du txapelketako lehiarik izango.



Bi taldeetako jokalaririk, baloia bihurtu korrika. TXINTXARRI

Zuri-urdinak nagusi izan dira kadete kopako lehiak

Ostadar SKT C eta Texas Lasartearra kadeteen 1. mailako taldeek derbia jokatu zuten kopako 11. jardunaldian. Michelin kirol guneko zelaian, bi taldeen arteko norgehiagoka borrokatua izan zen. Erasoan aukera asko sortu arren, urdin-beltzek ezin izan zuten baloia atean sartzerik izan. Zuri-urдинek, aldiz, ongi baliatu zituzten euren arrisku egoerak eta 0-2 gailendu ziren.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Ostadar SKT - Intxaurdi KE Igandea. 16:45. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA
Universidad de Deusto FC - Ostadar SKT Ostirala. 21:00. Zubietan, Donostian.
ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Axular KKE B Larunbata. 20:05. Michelin kirol gunean.
Allerru KE B - Texas Lasartearra CF Larunbata. 17:30. Plazeta, Lezon.
OHOREZKO JUBENIL MAILA
Ostadar SKT - Kostkas KE Igandea. 14:50. Michelin kirol gunean.
JUBENIL 1. MAILA, IGOERA
Danena KE B - Ostadar SKT B Igandea. 16:00. Elbarrena, Zizurkilan.
JUBENIL 1. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Martutene KE B Larunbata. 16:25. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT C - Danena KE C Larunbata. 18:20. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO KADETE MAILA
Arrupe Chaminade CD - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Felix Garin, Donostian.
KADETE 1. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Antigua Luberru KE B Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT C - Usurbil FT B Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.
Orereta Kafea FC A - Ostadar SKT B Igandea. 16:00. Beraun, Errenterian.

OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA
Ordizia KE - Ostadar SKT Larunbata. 15:45. Altamira, Ordizian.
INFANTIK TXIKI, KOPA
Ostadar SKT - Idiazabal KE B Igandea. 13:15. Michelin kirol gunean.
INF. 1. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA
Texas Lasartearra CF - Beasain SD Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
INFANTIL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Tolosa CF B Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunean.
Arrupe Chaminade CD A - Ostadar SKT B Igandea. 10:15. Felix Garin, Donostian.
INFANTIL F8, KOPA
Ostadar SKT - Santo Tomas Lizoea KE A Igandea. 10:35. Michelin kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
1. MAILA
Martutene La Terraza - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones Igandea. 12:30. Altza kirol., Donostian.
2. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - Ostiko ORE E-Sports AFT Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA, KOPA
AF Antxo Pescaderia Ferreres - Eguzki Bodegas Ayesa Larunbata. 14:00. Pasai Donibane kirol., Pasaian.
INFANTIL MAILA, 2. FASEA
Eguzki AF - Lauburu KE Ibarra Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOA
SENIOR 1. MAILA
Ostadar SKT - Vivanta Lezo SKT Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR PARTAIDETZA, IGOERA
Pixel Sistemas BKE - Ostadar SKT A Igandea. 12:30. Labegaraia kirol., Bergaran.
KADETE ERRENDI., KANPORAKETAK
Bera Bera - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
KADETE PARTAIDETZA
Bera Bera Albistur - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Manteo kirol., Donostian.
INFANTIL ERRENDI. ZILAR, 2. FASEA
Ostadar Urdina - TAKE Urbinox Larunbata. 09:00. Usabal kirol., Tolosan.
INFANTIL PARTAIDETZA
Ostadar Beltza - Aldapeta Maria ikas. Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
BOLEIBOLA
JUBENILA, AZKEN FASEA
Harresi Bi - Ostadar SKT Igandea. 13:00. Hondartza kiroldegia, Hondarribian.
KADETEA
Ostadar SKT B - Aldapeta Maria C Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT A - Aldapeta Maria B Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
INFANTILA
Arantzazuko Ama BHI - Ostadar SKT A Larunbata. 11:30. Arantzazuko Ama ikastola, Donostian.

PILOTA
JUB. 2. MAILA, LAU ETA ERDIA
Intza (Olazabal) - LAPKE (Oliden) Ostirala. 19:00 (1. partida). Loidibarren pil.
Intxurre (Onsalu) - Intza (Diaz de Gereñu) Ostirala. 18:15. (4. partida) Florri, Alegin.
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Intza (Iparragirre) - Oiarpe (Galardi) Ostirala. 19:00 (2. partida). Loidibarren pil.
Ilunpe (Peñagarikano) - Intza (Jauregi) Larunbata. 16:00 (4. partida). Behar Zana pil., Villabonan.
UDABERRI TX., ALEBINAK 1. MAILA
Intza - Ilunpe 2 Ostirala. 19:00 (3. partida). Loidibarren pil.
GRABNI, TRINKETEA, JUB., FINALA
Bizkaia - Gipuzkoa Larunbata. 15:00. Astronomos, Gasteizen.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Gesalaga Okelan Zarautz KE- Mazabi Santander Independiente RC Igandea. 12:00. Asti, Zarautzen.
18 URTEZ AZPIKO
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak KE - Gernika Arratikio RT Larunbata. 10:30. Asti, Zarautzen.
KONTXAKO TORNEOA
Beltzak RT eskolako 14, 12 eta 10 urtez azpiko gaztetxoek Kontxako hondartza torneoan parte hartuko dute. Larunbata. 10:00. Plaiaundi, Irunen.
IGERIKETA
ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTKo alebinek Ligako 7. jardunaldia jokatuko dute. Larunbata. Hernaniko kiroldegian.

KZL/TEST LIGA
Buruntzaldea IKTKo benjaminek euren Ligako 5. jardunaldia lehiatuko dute. Larunbata. Hernaniko kiroldegian.
NAUTIKUES DE TARBES
Buruntzaldea IKTKo Garazi Etxeberria 30eme Nautiques de Tarbes proban Gipuzkoako selekzioarekin lehiatuko da. Larunbata eta igandea. Tarbes, Frantzia.
ATLETISMOA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Ostadar SKTKo infantil mailako atletek eskolarteko Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute. Igandea. Goiza. Altamira, Ordizian.
PLP
Herriko atletek aireko denboraldia prestatzeko proba libreak dituzte. Larunbata. 16:00. Kote Olaizola estadioa, Donostian.
LASTERKETA
DOMUSA TEKNIK 40 MLK
LOTMEko Borja Granado korrikalariak II. Domusa Teknik 40 MLK proba lehiatuko du. Larunbata. 08:00. Azpeitian.
LANDARBASO TRAIL
Hainbat herritarrek Landarbaso Trail proban parte hartuko dute. Igandea. 10:00. Errenterian
TRIATLOIA
HONDARRIBIKO SPRINT TRIATLOIA
Lasarte-Oriako triatletek Hondarribiko Sprint proba lehiatuko dute. Larunbata. 17:00. Hondarribian.

Infantil eta alebinak, dominak pilatzen

Ostadar Atletismo saileko gaztetxoek bakarkako Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako bigarren saioa jokatu dute. Guztira sei domina eskuratu dituzte: urrezko hiru eta zilarrezko hiru. Aire libreko bigarren proba librean ere izan dituzte gainerako atletak

Txintxarri

Hitzordu bikoitza izan zuten apirilaren 29an eta 30ean herriko atletak Donostiako Kote Olaizola estadioan. Zaharrenek aire Libreko proba librean izan zuten; gaztetxoek, aldiz, Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldiari aurre egin zioten eta sei domina berri eskuratu dituzte gaztetxoek.

Infantil mailan izan ziren horietako bost. Eider Redondok eta Iugatz Almagrok bina jantzi zituzten eta Kevin Pinzak bat.

Luzera jauziko lehiaketan, esate baterako, lehen bi postuetan izan ziren Redondo eta Almagro. Lehiaketa zirrargarria izan zen. Herritarrek lehen postua eskuratzeko lehia bizian izan ziren eta saioko azken jauzian Redondok urrezko domina eraman zuen, 5,04 metroko jauziarekin; Almagrok 4,82 metrokoa egin zuen.

220 m. hesi proban ere lehen postua lortu zuen Redondok sailkapen proba guztietako azkarrena izanik, 32,36. Almagro, aldiz, bigarren sailkatu zen 800 metro lasterketako sailkapen proban zein finalean.

Pisu jaurtiketa proban ere taldekide Kevin Pinza podiumeko gorenera igo zen, 10,34 m., eta Xabier Martinek,



Iugatz Almagro (ezkerrean) eta Eider Redondo (erdian), luzera jauziko podiumean. G. REDONDO

berriz, bosgarren amaitu zuen lehia 9,11 metroko jaurtiketarekin.

Alebin mailako jauzi hirukoitzean lortu zuen jardunaldiko azken domina Dana del Amok. Talde urdin-beltzeko atleta gazteak zilarrezko domina eskuratu zuen, 7,78 m. eta Eibarren altuera proban lortutako brontzezko postuari gehitu dio podium berria.

Lehia berean, Nahia Garciak laugarren postuan amaitu zuen jardunaldia, 7,60 metroko jauzia eginez.

Ostadarreko alebinek atsedena izango duten arren, infantilek hilaren 6an, infantil mailako eskolarteko Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.

Ostadar SKTko 31 gaztek parte hartuko dute, baita Atletico San Sebastianeko Hodei Murguiondo herritarrak ere; 80 m. hesi proban parte hartuko du.

Proba librean

Aire libreko proba librean, aldiz, luzera jauzia, 100 m. lasterketa eta xabalina jaurtiketa probak jokatu zituzten herritarrek.

Aipatzekoak dira Alex Alkainek 100 m. lasterketan lortutako 11,48ko marka edo luzera jauzian egindako 6,08 metroko jauzia, Iraia Alkorkak 100 m. lasterketan ekuratutako 12,75ko marka eta Alaia Ramosek xabalinarekin egindako 30,47 metroko jaurtiketa.

Santander gailendu da igoera faseko joaneko neurketan

Gesalaga Okelan Zarautz RTk lau puntuko aldeari itzulia emateko aukera du Astin, hilaren 7an

Txintxarri

Ohorezko Mailara igotzeko sailkapen interesgarria jokatu du hilaren 7an Gesalaga Okelan Zarautz RTk etxean, Asti zelaian. Fran Puertas herritarrak zuzentzen duen taldeak Mazabi Santander Independiente RCren aurka jokatu zuen apirilaren 30ean, San Roman zelaian, Santanderren. Aurkaria 17-13 gailendu zen arren, etxean jokatu dute joaneko norgehiagoka eta itzulia emateko aukera du Zarauzko taldeak.

Lehen zatia borrokatua izan zen. 3-10 aurreratzea lortu zuten beltzek. Santanderrek ez zuen amore emango, ordea eta zigor kolpeen bitartez alde murriztea lortu zuten atsedena baino lehen, 9-10-

Bigarren zatian, ederki eutsi zioten aurkariari Fran Puertasen jokalariek azken zortzi



J.A. Puertas herritarra, baloi batengatik borrokan. PRESTAENA/ZARAUZ RUGBY TALDEA

minutuetara arte. Zigor kolpe bat huts egin zuten beltzek eta berdeek entsegu eta zigor kolpe batekin markagailuari itzulia ematea lortu zuten, 17-14. Azken segundora arte borrokatu zen Zarautz, baina ezin izan zen azken marrara gerturatu.

Unai Guisadok ezin izan du dominengatik borrokatu

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko Unai Guisado judokak Eskola mailako Espainiako txapelketan parte hartu zuen, apirilaren 29an, Madrilén, Euskal Federazioko kide bezala. Kadete mailako 66 kilo azpiko lehiaketan borrokatu zen herriko judoka gaztea eta ez zuen zorterik izan; ezin izan zen dominen lehiara iritsi.

Guisadok bi norgehiagoka egin zituen eta bietan aurkariak gailendu ziren.

Lehen fasean Julio Carazo madrildarraren aurka neurtu zituen indarrak LOKEko judokak eta ipon batek lehiaketa nagusitik kanpo utzi zuen.

Bigarren aukera ere izan zuen Guisadok podiumera igotzeko; brontzezko dominen kanporaketa jokatu zuen. Alabaina, Extremadurako Jose Mancera bidea itxi zion herriko judoka gazteari.

Lasarteoriatarak bakarka zein bikoteka lehiatu dira

Herritarrek zein herriko taldeetako ordezkariak hainbat probatan parte hartu dute mendian eta errepidean

Txintxarri

Lasarte-Oriako korrikalariak eta mendi zaletuak Gipuzkoan, Errioxan zein Nafarroan lehiatu dira proba ezberdinetan. Bikoteka zein bakarka euren onena eman zuten guztiek.

Apirilaren 28an, ostiralean, Lazkaoko proban parte hartu zuten Uxue Ariztimuño eta Unai Iribar herritarrek, 29.40.

Apirilaren 30ean, igandea, LOTMEko Arantxa Zapata herritarra Errioxan izan zen VIII.

Los Meandros de Briones proba jokatu zen. Zazpi kilometroko ibilbidea egiteko 52.53 behar izan zuen.

Bestalde, taldekide Mertxe Casas Bardeetan, Nafarroan, egin zen I. Trail Mirador de las Bardenas lehiaketako 20,5 kilometrotako proban hirugarren sailkatu zen, 03.04.57.

XVIII. Pagoeta Mendi Lasterketan ere izan ziren herritarrak bakarka (21 km.) zein bikote mistoan (8 km.) lehian. Lehenean David Garcia (02.01.37), Mikel Ubegun (02.09.13) eta Ivan Gutierrez



Arantxa Zapata, helmugara iristen.

MEANDROS DE BRIONES

(02.25.58) herritarrak zein LOTMEko Xabier Aizpuruak (02.32.22) amaitu zuten proba.

Bikotekakoan LOTMEko Alberto Roman eta Noemi Santamariak 55.55ko marka egin zuten helmugan. Proba horretan Mikel Garcia (56.51) eta Axerik taldeko Beñat Los Arcos (01.00.01) herritarrek ere parte hartu zuten.

Azkenik, maiatzaren lehenean, Andoingo Santa Krutz Kros herrikoian herritar talde bat izan zen lasterka eta horien artean azkarrena, Raul Gomez Margallo izan zen; helmugan 33.00 marka eginda seigarren sailkatu zen.

Igerilariek, marka eta gutxieneko ugari Irunen

Buruntzaldea IKTko igerilariek San Martzial Saria lehiatu dute berriki. 23 marka ontzeaz gain, maila ezberdinak Euskal Herriko zein Gipuzkoako Udako txapelketarako sailkapenak eskuratu dituzte igerilari gazteek

Txintxarri

Denboraldiko bigarren zatia hasiera ederra eman dio Buruntzaldea IKTk. Apirilaren 29an, taldeko hamahiru kidek Irungo San Martzial Sarian parte hartu zuten. Infantil, junior eta absolutu mailan lehiatu ziren igerilari gazteak eta guztira 23 marka pertsonal, Gipuzkoako Udako txapelketarako bost gutxieneko eta Euskal Herriko Udako txapelketarako lau txartela eskuratu zituzten (ikusita taula).

Aste Santuko etenaldiaren ondoren lehen lehiaketa zuten igerilariek eta Buruntzaldea IKTko arduradunak pozik daude kirolariak egindako lanarekin: "Gehienek haien proba ohikoenak ez zirenak hartzeko baliatu zuten hitzordua eta ondorioz, egindako saio gehienetan marka pertsonalak lortu dituzte gurek. Marka pertsonalak ondu ez zituztenen kasuan, euren onenetatik gertu aritu zirela esan behar dugu".



San Martzial sarian parte hartu zuten igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Udako denboraldia hasi berri dute eta dagoeneko hobekuntza handia den arren, igerilari bakoitzak bere helburuak lor ditzan lanean jarraituko dutela onartu dute taldeko arduradunek.

Hilaren 13an, Ordiziako Sarian izango dute euren aurrera

pausoak erakusteko hitzordu berria, Ordiziako Saria.

Bien bitartean, hilaren 6an eta 7an, taldekide Garazi Etxeberria Gipuzkoako Selektzioarekin lehiatuko da 30eme Nautiques de Tarbes txapelketan, Frantzia; estilo libreko zein bizkar estiloko

50 m. eta 100 m. probetan lehiatuko da.

Izen ematea, irekita

Bestalde, igeriketa taldeak 2023-2024 denboraldiko eskola zein parte-hartze mailako igeriketa saioen izena ematea ireki du.

2016 urtean eta aurretik jaiotako haur eta gazteek parte hartu dezakete kirol jarduera horretan.

Inskripzioa taldearen webgunean egin behar da. Ekimenen informazio gehiago ere eskura du taldeak sarean.

Intzako pilotariak emaitza ezberdinak lortu dituzte

Lau eta erdikoan hiru neurketatik bi irabazi dituzte; Jauregik ezin izan du garaipena erdietsi Gipuzkoako txapelketan

Txintxarri

Intza pilota eskolako eta Hernaniko ordezkarien arteko lau eta erdiko lehiak gozatu zuten apirilaren 29an Michelingo kirol guneko pilotalekuan. 2. jubenil mailako bi partida jokatu ziren. Aurreikuspenen arabera, herriko ordezkariarentzat gaunditzeko zailak ziren; bietako batean Intzako ordezkariak eskuratu zuen garaipena, ordea.

Haritza Diaz de Gereñuk neurketa ederra jolastu zuen eta Hernaniko Legarreta 22-11 garaitu zuen.

Olazabalek, aldiz, ezin izan zion Alegriari aurre egin eta hernaniarra 9-22 gailendu zen.

Lau eta erdiko jardunaldia izan zuen Peru Urdanpilletak ere, hilaren 28an, Zaldibian. Gaztelupeko Mendizabalen aurka neurtu zituen indarrak eta herritarra nagusi izan zen, 15-22.

Bestalde, alebina Gipuzkoako Berezkoak txapelketako lehen jardunaldiari aurre egin zion Oier Jauregik eta ez zuen lan makala izan. Pilotari gazteak bere mailako jokalariei onenetariko baten aurka jokatu zuen, Behar



Haritza Diez de Gereñu, pilotari jotzeko prest. TXINTXARRI

Zanako Iraola, eta ederki borrokatu arren ezin izan zituen nahi adina tanto egin. Ondorioz, Iraola 16-3 nagusitu zen.

GRABNIko finalean

Era berean, Intzako kide Urdanpilleta GRABNI lehiaketako

trinketeko finalera iritsi da Gipuzkoako selektzioarekin. Finalerdian Gaztelekuko Cestaurekin batera Nafarroa 40-12 gaunditu zuten. Hilaren 6an, 15:00etan, txapela izango dute jokoa Gasteizen; Bizkaia izango dute aurrez aurre.

Jaietako txapelketarako izen ematea

Intza Pilota elkarteak San Pedro Jaietako 29. Pilota Txapelketa antolatuko du. 2010 eta 2014 urte artean jaiotako haur lasarteoriatarrek parte har dezakete lehiaketan. Neurketak larunbat eta igandeetan jokatu dituzte Loidibarren pilotalekuan eta finala ekainaren 30ean izango da. Izen ematea astearteetan eta ostegunetan egingo dute Michelingo kirol guneko pilotalekuan 17:30etik 18:00etara; azken eguna maiatzaren 21a izango da.


Aste Santuko argazki lehiaketako irabazleak



'Ilunabarra Keramasen'.




'Egunsentiaren koloreak'.



'Lurretik zerura'.



'Mendiko ahuntza'.



'Sorpresa!'.



'Txoko polita'.



'Jira ta bira'.



'Lasaiiitasuna'.



'Gerezi lorea'.



'Iturri goxo'.



'Gerezi lorea'.



'Etxeko txikia naturaz gozatzen'.

Guztira 26 argazki jaso genituen, eta epaimahaikideak Isaac Farre Rico, Aitzol Etxegoien Andoño eta Ione Zabala Saratea izan dira. Hirukote horren irudi bozkatuena, Asier Garciarenaren *Ilunabarra Keramasen* izan da, eta Aldikaren eskutik saski eder bat eskuratu du. Irakurleen saria, berriz, Leire Varearen *Txoko polita* argazkiak irabazi du: Errigorako otarra. Zorionak bioi!




'Itsasargia ilunabarrean'.




'Zuloa'.



'Ilunabarra'.



'Nusa Lembongan, azken argi izpiak'.



'Naturaren kapritxoa'.



'Isladak'.



'Atlantikoa'.




'Bardenak'.



'Geldialdiak'.



'Anaiak'.



'Jakuzzia'.



'Etxebizitzak, koloreak, ibaia...'

KOMIKIA




ZORION AGURRAK



Xabat
Zorionak bombon! Ondo pasa zure urtebetetze eguna, infinito maite zaitugu. Muxuak Maren, ama eta lagunen partetik.



Jon eta Belen
"Maitasuna ez da urteak kontatzea, urteak kontuan izatea baizik". Zorionak 25. urteurrenarengatik. Malagente-ren lagunak.



Lier
Zorionak Lier! Urte askotarako etxekoan partez! Muxu potolo pila!



Unax
Ondo-ondo pasa eguna. Askoi maite zaitugu! 8 muxu potolo!

Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-ri. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 5	DE ORUE	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 6	DE MIGUEL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 7	DE MIGUEL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 8	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 9	GANDARIAS-URIBE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 10	DE ORUE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 11	DE MIGUEL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21
GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00		
K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77		
'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen		
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.		

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ERRENTAN HARTU
Donostian hilabete batzuetarako alokairu bila gabiltzan familia bat gara. Gutxi gorabehera 2023 ko urritik 2024 ko martxora arteko hilabeteetarako behar dugu, eta Amaran, Easo plaza inguruan edota hiriko erdigunean alokatzea gustatuko litzaiguke. Ahal izanez gero 2 gelako etxebizitza beharko genuke. Harremanetarako 639 98 76 45 / 690 27 04 68 (Olatz eta Aitor)

LANA
ESKAINITZA
Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza.

Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644116122

Barazar ostatua (Zubieta) zerbitzari bila ari da ostiral, larunbat eta igande eguerdian lan egiteko. Harremanetarako zenbakia: 943 36 33 58.

ESKARIA
Interna gisa egingo nuke lan, astelehenetik igandera. Esperientzia dut, eta pertsona helduak zaintzeko Eusko Jaurlaritzaren ikastaroaren ziurtagiria ere bai. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Pertsona helduak zein haurrak zainduko nituzke, edota garbiketa lanak egin. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41

Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egunez zein gauez). Erieteetan ere zaintza lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota ebeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota ebeko lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Paperak behar bezala ditut eta eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82.

SALEROSKETA
SALDU
Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Etxera eramaten da. Harremanetarako zenbakia: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK
HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest, goizez nahiz arratsaldean. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuoko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

OSTIRALA 5

LASARTE-ORIA Erakusketa

Diego Matxinbarrena artistaren lanak erakutsiko dituzte Siglo 20 tabernan, ekainaren 20ra arte. Sarrera, doan.
Siglo taberna, 19:00etatik 21:00etara.

LASARTE-ORIA Jardunaldiak

Danok Kide Guraso Elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, Balioetan Hezi XIV. jardunaldiak iragarri ditu. Felix Garitano Laskurainek *Zer ari da gertatzen gaurko Elizan?* hitzaldia emango du.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:30ean.

LARUNBATA 6

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kanpora sartzen antzezlanaren emanaldia egingo du Txalo Produzioak konpainiak. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 7

LASARTE-ORIA Topaketa

Etxera Eguna antolatu du Lasarte-Oriako Sarek.
09:30ean martxan aterako dira Santa Barbara mendira.
12:30ean talde argazkia aterako dute partaideek Okendo plazan. Ondoren, luntxa eta bertsolariak izango dira.
Santa Barbara mendia eta Okendo plaza, 09:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Erromeria

Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak erromeria antolatu dute Azkorten. 11:00etako mezak emango dio hasiera ospakizunari, eta hori amaitu ostean, herri kirol ikuskizuna eskainiko dute Telleriak eta Gabirondok. Ondoren, erromeria izango da. Antolatzaileek iragarri dute uneoro izango dela jan-edana.
Azkorte, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Zinema

Hanna y los monstruos filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.



LASARTE-ORIA Erromeria. Jai giroa nagusi izango da Azkorteko ermitan, Ttakun Kultur Elkarteak eta udalak elkarlanean antolatutako erromerian. Hau izango da egitaraua: 10:00etan, tabmaren irekiera (salda, txorizoa, odolkia eta edari freskoak izango dituzte); 11:00etan, meza; eta 12:00etan, herri kirolak, Beñat Telleria eta Julen Gabirondoren eskutik. Trikitilariak girotuko dute goiza. Autobus zerbitzua jarriko dute antolatzaileek, Biyak Bat egoitzatik (Kale Nagusia, 40). Etzi, hilak 7, igandearekin, Azkorteko ermitan, goizean zehar.

LASARTE-ORIA Zinema

Los tres mosqueteros: D'Artagnan filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA Jaia

Udaberri Festa egingo du Aterpea elkarteak. Besteak beste, tailer batzuk antolatu ditu:
17:00etatik 18:30era, etxeko gailetak egiten ikasteko saioa, Plan B kafetegian.
17:00etatik 19:00etara, landareak landatzen ikasi, Ormazabal loradendan.
17:00etatik 19:30era, Osasuna eta etxeko sendagaiak tailerra, Eli Lasa farmazian.
Herrian barrena, arratsaldean zehar.

LASARTE-ORIA Zinema

20.000 especies de abejas filma emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 22:00etan.

LARUNBATA 13

LASARTE-ORIA Jaia

Iñigo de Loiola kaleko bizilagunek Udaberriko Festa ospatuko dute.
10:00etan, diana. Ankoker taldeak esnatuko du auzoa.

11:00etatik aurrera, pintxo potea jan-edana agortu arte.
11:00etatik 13:00etara, haurrentzako jolasak.
12:00etan, bizkotxo lehiaketa.
12:00etatik 14:00etara, Gautxori txaranga ibiliko da kaleetan zehar.
14:30ean, paella herrikoa, 8 euroren truke: paella, edaria eta postrea. Iñaki tabernan erosi behar dituzte txartelak herritarrek.
16:00etan, bingoa.
18:30etan, dantza saioa: salsa, merengea, eta abar.
19:00etan, disko festa, DJ Karpinen eskutik.
Iñigo de Loiola kalea, egun osoa.

LASARTE-ORIA Jaia

Udaberri Festa egingo du Aterpea elkarteak. Jarduerak, hauek:
20:00ak arte, txu-txu tren bat herrian barrena ibiliko da.
13:00etatik 16:00etara, Udaberri Street Food festa, Arkupe tabernan.

IGANDEA 14

LASARTE-ORIA Zinema

Oink Oink filma emango dute. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

20.000 especies de abejas filma emango dute. Sarrerek, 6 euro.
Kultur etxea, 19:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

KULTUR ETXEA

'Hanna y los monstruos'

Igandea 7

17:30.

'Los tres mosqueteros: D'Artagnan'

Igandea 7

19:30.

'20.000 especies de abejas'

Ostirala 12

22:00.

Igandea 14

19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Driving Madeleine'

Larunbata 6

19:30, 22:00.

Astelehena 8

19:30, 22:00.

HERNANI

BITERI

'The quiet girl'

Ostirala 5 -

Astelehena 8

22:30.

USURBIL

CINESA URBIL

'Guardianes de la galaxia 3'

Ostirala 5

16:00, 17:00, 17:45,

18:00, 19:45, 20:45,

21:30, 21:45.

Larunbata 6

16:00, 17:00, 17:45,

18:00, 19:45, 20:45,

21:30, 21:45.

Igandea 7

16:00, 17:00, 17:45,

18:00, 19:45, 20:45,

21:30, 21:45.

'Super Mario Bros'

Ostirala 5

16:50, 19:15.

Larunbata 6

16:50, 19:15.

Igandea 7

16:50, 19:15.

'¡Vaya vacaciones!'

Ostirala 5

15:50.

Larunbata 6

15:50.

Igandea 7

15:50.

'Asedio'

Ostirala 5

16:15, 18:45,

21:15.

Larunbata 6

16:15, 18:45,

21:15.

Igandea 7

16:15, 18:45, 21:15.

'Las buenas compañías'

Ostirala 5

16:40, 20:25,

22:25.

Larunbata 6

16:40, 20:25,

22:25.

Igandea 7

16:40, 20:25,

22:25.

'Los buenos modales'

Ostirala 5

15:50, 21:20.

Larunbata 6

15:50, 21:20.

Igandea 7

15:50, 21:20.

'El despertar'

Ostirala 5

22:40.

Larunbata 6

22:40.

Igandea 7

22:40.



LABURPENA

'20.000 especies de abejas'

Zuzendaria: Estibaliz Urresola. **Gidoia:** Estibaliz Urresola. **Argazkia:** Gina Ferrer. **Ekoizleak:** Gariza Films, Inicia Films, ETB, ICAA, Movistar Plus+, RTVE. **Herrialdea:** Espainia (2023). **Iraupena:** 129 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Sofia Otero, Patricia Lopez, Ane Gabarain, Itziar Lazkano, Martxelo Rubio, Sara Cozar, Miguel Garces, Unax Hayden, Andere Garabieta.

Oporraldi berezi bat

Cocok 8 urte ditu eta sentituko du ez duela gainerakoez berarengan dituzten espektatibak betetzen: Aitor izenez deitzen diote guztiek baina bera ez da eroso sentitzen horrekin, ezta begiratzen dioten moduarekin ere.

Ane (Patricia Lopez) da Cocoren ama, eta arazoak ditu harremanekin zein lanarekin. Horren aurrean, hiru semeak hartu eta bere ama Litaren

(Itziar Ituño) etxera oporretara joatea erabakiko du. Bertan bizi da izeba Lourdes (Ane Gabarain) ere; erleak hazten ditu eta eztia ekoizten.

Udako oporraldi horrek hiru emakume helduen bizitzak aldatuko ditu, norberak bere zalantza eta ezinegonei aurre egin beharko dietelako.

Estibaliz Urresolaren pelikula honek harrera oso ona izan du eta zenbait sari irabazi ditu.

Egutegian izendatzekoa

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu dute diziplina artistiko hori jorratzen duten zenbait taldek. Emanaldien ostean Yang Liping koreografo txinatarraren manifestua irakurri dute

Iñigo Gonzalez Sarobe

Urteko egun bakoitzean zer ospatu behar dugun erabakitzen dutenentzat: apirilaren 29a bada Dantzaren Nazioarteko Eguna, izenda dezatela baita ere Dantzaren Lasarte-Oriako Osteguna; hilabete horretako 27a izan da aurten. Diziplina eder horri ohore egin zioten herriko zenbait eragilek Okendo plazan: Erketz EDT, Sahara Taldea, Semblante Andaluz, Amaia Gonzalez Caballeroren akademia eta Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak, ekitaldiaren antolatzaileak. Ordubete inguruz emanaldi ederrak eskaini eta gero, Yang Liping koreografo

txinatarraren *Dantza: munduaren komunikatzeko bide bat* manifestua irakurri zuten.

"Dantza beti izan da gizakiak naturarekin eta gainerako izaki bizidunekin komunikatzeko giltza", dio Lipingek. Horri jarraiki, hamaika mugimendu eta keinu erabili zituzten taldeetako dantzariak parean zituzten ikus-entzule ugariarekin harremana egiteko. Horiek, esker onez eta txundituta, txaloeekin erantzun zuten.

Dantzaren bueltan lanean eta gozatzen dabilzanak zenbat diren erakusteko asmoz, amaitu aurretik talde argazki erraldoia atera zuten Okendon bertan.



Semblante Andaluz. TXINTXARRI



Kukuka eskolako talde bat. TXINTXARRI



Goitik hasita: Erketz EDT, Sahara Taldea eta Amaia Gonzalez Caballeroren akademiako ikasleak, eta amaierako argazkia. TXINTXARRI

jaldi
kale@antzokia

irekiera
maiatzak 11 osteguna
19:00-21:00

Bide berri hau **zuokin** batera egiteko ilusioz gatoz... bazatoz **gurekin?**

HERRI
URRATS

urratsak zubi
Senpere · Maiatzak 14

ZATOZ GUREKIN
AUTOBUSEZ!

8€ HAURRAK (<12)

10€ BAZKIDEAK

12€ GAINERAKOAK

IRTEERA: 9:00 LASARTE-ORIA

9:15 HERNANI

ITZULERA: 19:00 SENPERE

Izen ematea: maiatzaren 11 baino lehen

Geltoki kalea 4, LASARTE-ORIA | 943-37 14 48 | 695 78 53 89 | kultura@ttakun.eus

ANTOLATZAILEAK:

30 DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

